

TXOSTEN HAU EGIN DUGU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2024KO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZ.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta landu da, bat etorrita Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 20. artikulua –martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu zuen; hemendik aurrera, Berdintasunerako Legea– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumenarekin.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Berdintasunerako Legearen 20. artikulua, bai, halaber, generoaren gaineko eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak –zeinak Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioaren bidez onetsi baitziren–, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua.

Beraz, xedapen arautzaile orokorra da, eta generoaren arabera zer eragin duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoaren arabera. Horri begira, generoaren araberako eraginari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Egiaztatu dugu bete egin direla Berdintasunerako Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, genero-eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu.

Gizon-emakumeen berdintasunaren arloan jardun behar dutenean, euskal aginte publikoek printzipio orokor batzuk bete behar dituzte; bada, Ogasun Sailak egindako eragin-txostenaren arabera, Berdintasunerako Legean datozenak dira printzipio horiek; hura da horretarako erreferentziazko arau-esparrua. Lege horrek dakartzan

printzipioetako batek politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia sartzera behartzen ditu Euskadiko botere publikoak . 15. artikuluan, berriz, beren beregiz aipatzen da *EAEko administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela aurrekontu publikoetan, bereziki haiek taxutzeko fasean, emakumeen eta gizonen premia diferenteak kontuan izateko eta berdintasuna sustatzen eta sexuan oinarritutako desberdinkeriak desagerrarazten laguntzeko. Horretarako, gidalerroak ezarri behar dituzte, eginkizun hori gauzatzeko, horri jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, eta trebakuntza-prozesu egokiak abiarazteko.*

Aurrekontuetarako lege-aurreproiektuaren berdintasun-txostenak zehatz-mehatz jasotzen du genero-ikuspegia zenbateraino dagoen txertaturik EAEko administrazioaren politika publikoetan, zer aurrerapen egin diren, eta hurrengo ekitaldian zer hobetzea proposatzen den; eta, ildo horretan, erakusten du Eusko Jaurlaritza engaiatuta dagoela sustatzera eta bermatzera gizon-emakumeek aukeretan eta tratuan berdintasuna izan dezaten bizitzaren esparru guztietan.

Horra hor, adibidez, Ekonomia eta Ogasun Sailera iritsi diren txosten guztiak, administrazio-prozedura arruntak agindu legez bidaliak sail guztiek, erakunde autonomoek, partzuergoek, EITB taldeak, Osakidetza, SPRI taldeak eta URAk. Ondo aztertu behar, giltzarriak baitira generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiteko. Alde batetik, aurrekontua programaz programa hartu, eta dakartzaten jarduketek generoari nola eragiten dioten aztertu dugu, eta eragin horrek zer ondorio izan dituen aurrekontuetan; eta, bestetik -aurreko ekitaldietan bezala, denboran zehar zer bide egiten dugun jakitearren- jaso da zer egiteko asmoa dagoen lehentasunezko bi ardatz erkideotan: Soldata Arrakalaren aurkako Plana; eta EAEko Berdintasunerako VII. Planeko III. ekintza-ardatza: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

Azken batean, aipatutako alderdiak kontuan hartuta, gure iritzia da Ekonomia eta Ogasun Sailak benetan lan ona egin duela genero-ikuspegia gobernuaren aurrekontu-jardueran txertatzen, konpromiso eta lidergo politikoak sendotzen jarraituz; eta orobat onak direla alderdi inplikatuak darabiltzaten estrategiak lan teknikoa egiteko. Haiei esker, aurrekontu orokorrak egiteko administrazio-prozeduran aurrerantzean ere egingo dugu bultzak genero-ikuspegia txertatze aldera.

Beste alde batetik, nahiz eta oso positibotzat jotzen dugun eraginari buruzko txostenean egindako azterketa (bete-betekoa baita, eta, aurrekontu-diagnostikoari dagokionaz gain, diagnostiko espezifiko bat ere jasotzen baitu, agerian utziz biztanlerian dauden genero-

arrakala nagusiak), hala ere, berriro diogu izapidetze-denborek ez dutela ahalbidetzen nahikoa denbora izatea edukiaren azterketa sakona egiteko.

Jarraian, gure ustez garrantzitsuak diren alderdi batzuk nabarmenduko ditugu, labur-labur.

Lehenik, EAEko diagnostiko sozioekonomikoari buruzko atala daukagu. Bada, adierazi dugun bezala, txostenean, aztertu dugu ea egoera sozioekonomikoak nola eragiten duen EAEko emakumeengan eta nola gizonengan. Labur-labur, esparru hauetan dauden genero-arrakala nagusiak zehazten ditu: osasuna, hezkuntza, giza eskubideak, biktimak eta aniztasuna, zainketa-lana eta ordaindutako lana, emakumeen aurkako indarkeria, pobrezia eta gizarte-bazterketa, eta erabakiak hartzen parte hartzea. Apartatu honetan azaldutako emaitzak abiapuntua dira ezagutu ahal izateko aurrekontu-programek EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan duten intzidentzia eta abian diren jarduketek zein neurritan ahalbidetu dezaketen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren egiturazko fenomeno unibertsal hori zuzentzeko neurriak hartzea.

Sailen gastuari eta haien aurrekontu-programei buruzko azterketari dagokionez, EAEko Aurrekontu Orokorrari buruzko datu banakatuak (atalak) eta aztertutako aurrekontuari buruzko datuak (sailka) eman dira, baita Osakidetza eta EITBren aurrekontuen azterketa ere.

Aztertutako **aurrekontua** honela banatuta dago 2024an¹:

- 2024an, **Eusko Jaurlaritzako sail guztien** aurrekontu bateratua (1-12 atalak, baina kontuan hartu gabe EAEko Administrazioa osatzen duten beste erakunde batzuei egindako transferentziak) aurrekontu osoaren % 92,48 izango da 2024an, 7.343.240.541 €, politika publikoak gauzatzeko.

Aurrekontuaren erdia baino gehiago (% 57) Osasun Sailera (% 80 Osakidetza) eta Hezkuntza Sailera doa. Eta bikote horretara beste bi sail batuz gero, Lan eta Enplegu Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, aurrekontu-metaketa % 69ra iristen da. Hala,

¹EAEko aurrekontu orokorra faseka aztertzean datza Ekonomia eta Ogasun Sailaren estrategia. Azterketetan sakontzen den heinean eta genero-ikuspegidun aurrekontu-prozesua sendotzen den heinean, handitu egingo da aztertu beharreko aurrekontu kopurua. Aurkeztutako datu horiek azterketa-modu edo aurrekontu-zenbatekoetako baten parte dira.

- **Osakidetzaren** 2024rako administrazio-aurrekontua 3.936.602.319 eurokoa da.
- **EITBren** administrazio-aurrekontua 211.890.673 €-koa da.
- **SPRI Taldearen** administrazio-aurrekontua 274.640.058 €-koa da, iazkoa baino % 47 handiagoa.
- **URAren** administrazio-aurrekontua 66.236.359 €-koa da.
- Eusko Jaurlaritzako sailetara atxikitako **erakunde autonomo eta partzuergoen** aurrekontu bateratua **1.390.204.602€**-koa da.

Eraginari buruzko txostenean **aztertutako** aurrekontua EAEko **aurrekontu osoaren % 88** da, 2023an baino bi puntu gehiago.

Aurrekontu-programak generoarekiko duen loturari dagokionez², txostenak zera azpimarratzen du: aurrekontu-programen aurrekontuaren % 99,7 jo dira generoarekin lotutako gaitzat. Programa horietatik, % 77 garrantzi handikotzat jo da³, eta % 22 garrantzi ertainekotzat. Datu horiek agerian uzten dute -argi dago- aurrekontu-programen ehuneko oso handi batean ez dagoela genero-neutraltasunik.

Har ditzagun, orain, soldata-arrakala murrizteko identifikatutako jarduketak: 2024rako, 107.423.331 €-ko aurrekontua identifikatu da, hau da, aurrekontu osoaren % 5,9.

Nabarmenezkoa da desberdintasun hori desagerrarazteko aurrekontu osoaren % 87,93 Hezkuntza Sailari dagokiola. Hazkunde hori hain nabarmena izan da, hain zuzen ere, sail horrek egindako jarduera berri baten ondorioz: Haurreskolak Partzuergoaren finantzaketa, hau da, 2023-2024 ikasturtetik aurrera Haurreskolak Partzuergoko 0 eta 3 urte bitarteko eskolak doakoak izango dira.

Bestalde, **Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko identifikatutako 2024ko aurrekontua 28.216.564koa da**, hau da, EAEko 2024ko aurrekontu osoaren % 0,19, eta Administrazio Orokorraren (1.-12. atalak, kontuan hartu gabe EAEko administrazioko beste ente batzuei egiten zaizkien transferentziak), haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu aztertuen % 0,21.

²Programa batek generoarekin zerikusia du, baldin eta azken hartzaile gisa pertsona fisikoak baditu, edo juridikoak, edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuk eta/edo zuzenean edo zeharka emakumeen eta gizonen bizi-baldintzetan eragiten badu.

³Jakin nahi badugu dena delako aurrekontu-programa bateko helburuek zer garrantzia duten generorako, bi irizpide hartzen dira kontuan: nori zuzenduta dauden, eta zer gaitasun duten genero-desberdintasunak murrizteko.

Beste gai bat: **genero-ikuspegiz planifikatutako jarduketak, eta genero-ikuspegiz diseinatzeko ari diren jarduketak**. Bada, txostenak dioenez, aurrekontuetatik ordainduko diren jarduketak planifikatzeko orduan, ez da erraza genero-ikuspegia txertatzea zeharka. Txostenak, horregatik, eta ez dagoenez irizpide argirik aurrekontua isolatzeko, jarduketetarako aurreikusitako zenbateko globalak eskaintzen ditu, baina ez dira aurrekontuan sartzen I. kapitulutik ordaintzen diren jarduketak (Langileen gastuak), Emakunderenak izan ezik, haren aurrekontu guztia baitago genero-ikuspegiz diseinatuta.

Horrela, 2024ko aurrekontuen kargura genero-ikuspegiz diseinatutako jardueren aurrekontua 1.028.896.600 €-koa da, aztertutako aurrekontuaren % 12 (erakunderik gabe); aldiz, genero-ikuspegiz diseinatzeko ari diren jarduketetarako aurrekontua, guztira, 645.418.987 €-koa da.

Ahalegina handia da diseinu-lana geroz eta gehiago genero-ikuspegiz egiteko, datuek agerian uzten dutenez. Izan ere, genero-ikuspegia txertatuta duten jardueren aurrekontua % 19tik % 61,45era igo da aurreko aurrekontuekin alderatuta.

Aurreko ekitaldietan bezala, jarduera horiei dagokienez, Lan eta Enplegu Saila (batez ere Lanbide) nabarmentzen da bere aurrekontu-bolumenagatik: jarduketa guztien % 64,82.

Berdintasunerako ekintza positiboak dagokienez⁴, identifikatutako horrelako ekintzen aurrekontu osoaren % 61,53 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio.

Eraginari buruzko txostenak, azkenik, **sail bakoitzerako aurrekontu-programen** azterketa xehea egiten du. Berrito diogu: denbora faltaz, ezinezkoa zaigu ahalik eta azterketarik zehatzena egitea.

Azkenik, sail eskudunaren lidergoaz eta tartean diren eragile guztien lanaz gain, ezin dugu ahaztu zein garrantzitsuak diren kontzeptu-esparrua, metodologia eta prozesuak, haiek ere laguntzen baitute aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia eraginkortasunez txertatzen. Horregatik, orain arteko aurrekontuetarako egindako eragin-txostenetan adierazitakoaren ildotik, garrantzitsua da estrategiaz aurrera egitea eta beste bultzada bat ematea aurrekontu orokorretan genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginari, hartara aitzina egiten jarraitzeko EAEko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuan.

⁴ **Ekintza positiboak:** neurri espezifikoak eta aldi baterakoak dira; ezberdinak dira emakume edo gizonentzat; eta haien helburua da sexuaren arabera izateko desorekak ezabatzea edo urriaraztea bizitzako esparru guztietan.

Beste behin ere, aurreko ekitaldietan adierazi dugun bezala, eta zailtasunez jabetzen garen arren, berriro adierazten dugu komenigarria dela erakunde honi lehenago eskatzea nahitaezko txostena. Egiaztapen-txostena ere berehalakoan egin behar izaten dugu, eta ezinezkoa izaten da ezer sakonago aztertzea. Aldi berean, ez da erraza ekarpenak egitea; eragin-txostenak zer dakarren esan eta kito, besterik ez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23an.